



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK PLAZA BARRIAK SORTUKO DITU AURTON EGOITZETAN GAIXOTASUN MENTALA DAUKIEN PERSONENTZAT

- **44 plaza izango dira, 25 Santurtzin eta 19 Bizkaiko “beste egoitza batzuetan”, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako batzordean aurreratu dauenez**

(Bilbon, 2021eko maiatzaren 6an). EH Bilduk eskatuta, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak agerraldia egin dau Bizkaiko Batzar Nagusietan, nahasmendu mental larria daukien personei arreta soziosanitarioa emoteko Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak 2019ko abenduaren 17an sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren aldaketea azaltzeko. Osasun Sailagaz lortutako akordio horren arabera (Foru Gobernu Kontsejuak martiaren 16an onartu eban aldaketea), “44 plaza” sortuko dira persona horreentzat. Horretarako, aurton “775.000” euro eta 2022an “900.000” “gehitu” beharko jakez aurrekontuei, Murillok baieztu dauenez.

Aldundiak “25” plaza erreserbau ditu Santurtziko egoitzan (Itsasoko Etxea). Horreetatik “12 erabilten ari dira daborduko”, eta beste “19” aurton bertan sortuko dira, oraindino zehazteko dagozan zentroetan, baina Uribeko eskualdeak lehentasuna izango dau, gaur egun “plaza bakar bat be” ez daukalako.

Izaskun Duque EH Bilduko ordezkariaren ustez, bere taldeak idatziz jasotako erantzun batean azaltzen danez, planteautako plazak “gitxi” dira. Erantzun horretan oinarrituta, Bizkaian nahasmendu mentala daukien personentzako itxarote-zerrenda “75 personakoa da laguntzako etxebizitzetan” eta “123koa egoitzetan”. Duquek “ahalegin handiagoa” eskatu dau, eta egoitzetako plazak eskuratzeko itxaronaldia kritikau dau, “hainbat hilebetetakoa” dalako.

Murillok azaldu dauenez, Osasun Sailagaz lortutako akordioa “aurrerapausua” da, eta Bizkaian gaixotasun mentala daukien personentzako zainketa egitura zelan geratzen dan argitu gura izan dau. “Guztira”, 827 plaza izango dira, “435” eguneko arretan eta “392” egoitzetan. Horrez gain, azaldu dauenez, “ez dira itxarote-zerrendak, esleipenaren zain dagozan personak baino”; izan be, “batzuetan” plaza beharrei ez erantzuteko errazoa, eskatzaileak berak ez onartzea da, “hainbat errazoiengaitik”. Horren harira, Murillok datu bat emon dau: batez beste “56 egun” behar dirala mendekotasuna baloretako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

SAVI PROGRAMEA

Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaiak galdetuta, Sergio Murillok Fekoorek kudeatzen dauen Bizitza Independenteari Laguntzeko Zerbitzuaren (SAVI) iragana, oraina eta etorkizuna errepassau ditu. Zerbitzu horrek Laguntza Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoaren (LPPE) laguntza-orduak, bizitza independentea benetan gauzatzeko laguntza pertsonaleko orduakaz osatzeko aukerea emoten dau.

240.000 euroko diru-laguntza izendunari esker 2014an hasitako programa “esperimental” horrek (diru-laguntza hori orain 590.000 eurokoa da), bost urtetan (2014-2019) bizitza independentea izaten laguntzeko “6 personari” laguntzetik, “ia ehun personari” laguntzera pasau da. Murillok proiektu “barritzaile eta esperimental” hau aktibetako diru laguntzea defendidu dau, Gizarte Zerbitzuen Legeak jasoten dauen moduan.

Hori bai, epe laburrean aldaketak egongo dira. Sailak hirugarren sektoreagaz batera egin dauen eta laster argitaratuko dan desgaitasunaren ebaluazio “bateratuaren” txosten batean oinarrituta, bizitza independenteari laguntzeko zerbitzu horreek “2023a baino lehen” finkatzearen, egonkortzearen eta hedatzearen alde egiten da. Aurreikusten dan ekintza-planaren helburu estrategikoetako bat “zerbitzuen ezarpenean aurrera egitea” da, profilak, ibilbideak, etorkizuneko zerbitzu-eredua eta egituratu beharko diran prestazioak eta baliabideak mahai bateratu baten bidez definituteko.

“Kritika konstruktiboa” eginez, Elkarrekin Bizkaia eta EH Bildu “proiektua finkatzearen” alde agertu dira, proiektu aitzindariaren seilu hori atzean izteko eta “baliabide gehiago” jarteko. Foru Gobernua babesten daben taldeek, bost urteko hausnarketaren ostean, zerbitzu horreek “sendotzeko eta hobetzeko” “unea” iritsi dala uste dabe.

BAZTERTUTAKO PROPOSAMENA

Azkenik, Gizarte Ekintzako batzordeak atzera bota dau EH Bilduren arauz besteko proposamen bat, kontrako 9 botogaz (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) eta aldeko 5 botogaz (koalizio abertzaleak eta Elkarrekin Bizkaiak batutakoak). Proposamen horrek ikerketa bat egiteko eskatzen eutsan Aldundiari Bizkaian “6 egoitza” kudeatzen dituan DomusVi enpresaren eta Bizkaiko ehorztetxeen arteko ezkutuko akordioen inguruan. Akordio horren bidez, hildako persona bakoitzeko “700 euroko” komisinoa eskaintzen zan, Izaskun Duque batzarkideak komunikabide digital baten iturriak aitatuta azaldu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

dauenez. Foru Gobernua eusten daben talde biek ekimena atzera bota dabe, “Aldundiko ikuskaritza eta kontrol zerbitzuen eginkizunen artean ez dagolako lan hori egitea”, eta bai, barriz, Fiskaltzaren edo Lehiaren Euskal Agintaritzaren eginkizunetan. Gizarte Ekintza Saila “gizarte-zerbitzuen araudiaren urraketeagaz” zerikusia daukien gaietara mugatzen da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN CREARÁ ESTE AÑO NUEVAS PLAZAS RESIDENCIALES PARA PERSONAS CON ENFERMEDAD MENTAL

- Serán 44 plazas, 25 en Santurtzi y 19 en “otros centros” de Bizkaia aún por concretar, según ha avanzado hoy en una comisión de las Juntas Generales de Bizkaia el diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo.

(Bilbao, a 6 de mayo de 2021). A petición de EH Bildu, el diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, ha comparecido en comisión en las Juntas Generales de Bizkaia para explicar la modificación del convenio de colaboración suscrito el 17 de diciembre de 2019 entre la Diputación Foral de Bizkaia y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, para la atención sociosanitaria a las personas con trastorno mental grave. En virtud de este acuerdo con el Departamento de Salud (el Consejo de Gobierno foral aprobó el cambio el 16 de marzo), se cofinanciará la creación de “44 plazas” para estas personas. Para ello, será necesario incorporar al presupuesto de este año “775.000” euros “adicionales” y “900.000” euros en 2022, según ha confirmado Murillo.

La Diputación ha reservado “25” de estas plazas en la Casa del Mar de Santurtzi, de las que “12 ya están siendo utilizadas”. A estas plazas que atenderán la Margen Izquierda se añadirán otras “19” este mismo año en centros aún por concretar, aunque tendrá “prioridad” la comarca de Uribe por no disponer actualmente “de ninguna plaza”.

La representante de EH Bildu Izaskun Duque ha considerado que las plazas planteadas son “escasas” a tenor de una respuesta por escrito recibida por su grupo en la que se decía que la lista de espera en Bizkaia para personas con trastorno mental es de “75 personas en viviendas con apoyo” y de “123 en residencias”. Duque ha pedido “un mayor esfuerzo” y ha criticado también el tiempo de espera para obtener plazas residenciales que es de “algunos meses” según el propio escrito.

Murillo ha respondido que el acuerdo con el departamento de Salud supone un “avance” y ha querido aclarar cómo queda la estructura de cuidados para personas con enfermedad mental en Bizkaia. Con la incorporación de estas 44 plazas, “en total”, pasarán a ser “827” plazas, “435” en atención diurna y “392” en residencias. Asimismo, ha explicado que “no son listas de espera, sino personas pendientes de asignación”. La Diputación ha decidido no sacar del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

listado a los demandantes que “por distintas razones” se niegan a aceptar la plaza. En este sentido, Murillo ha ofrecido un dato: los “56 días” que de media se tarda en valorar la dependencia.

PROGRAMA SAVI

Por otro lado, preguntado por Elkarrekin Bizkaia, Sergio Murillo ha repasado el pasado, presente y futuro del Servicio de Apoyo a la Vida Independiente (SAVI), gestionado por Fekoor, que ofrece la posibilidad de complementar las horas de asistencia de la Prestación Económica de Asistencia Personal (PEAP) con horas de apoyo de asistencia personal para el ejercicio efectivo de la vida independiente.

Este programa “experimental” iniciado en 2014, gracias a una subvención nominativa de 240.000 euros y que ahora es de 590.000 euros, ha supuesto que en cinco años (2014-2019) se beneficie de “6 personas” en apoyo a la vida independiente a “casi un centenar”. Murillo ha defendido la herramienta de la subvención, criticada por el grupo morado, para activar este proyecto “innovador y experimental” tal y como recoge la Ley de Servicios Sociales.

Eso sí, a corto plazo habrá cambios. En base a un informe de evaluación “conjunta” de discapacidad que el departamento ha realizado con el tercer sector, y que será publicado próximamente, se apuesta por la “consolidación, estabilidad y extensión” de estos servicios de apoyo a la vida independiente “antes de 2023”. Uno de los objetivos estratégicos del plan de acción que se contempla es “avanzar en la implementación de servicios” a través de una mesa conjunta para definir los perfiles, los itinerarios, el modelo de servicio del futuro y las prestaciones y recursos que serán necesarios articular.

En un tono de “crítica constructiva”, Elkarrekin Bizkaia y EH Bildu han abogado por “afianzar el proyecto” para que se “deje atrás” ese sello de proyecto pionero y se activen “más recursos”. Los grupos que apoyan al Gobierno foral ha coincidido en que “ha llegado el momento”, tras un periodo de reflexión de cinco años, de “consolidar y mejorar” este programa.

PROPOSICIÓN RECHAZADA

Por último, la comisión de Acción Social ha rechazado una proposición no de norma de EH Bildu, por 9 votos en contra (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) y 5 a favor (los sumados por la coalición abertzale y Elkarrekin Bizkaia), que pedía a la Diputación una investigación sobre la existencia de acuerdos “ocultos” entre la empresa DomusVi, que gestiona “6 residencias” en



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Bizkaia, y funerarias de Bizkaia, por la cual se ofrecía una comisión de “700 euros” por cada persona fallecida que se derivara, según ha detallado la juntera Izaskun Duque, citando fuentes de un medio de comunicación digital. Los dos grupos que sustentan al Gobierno foral han rechazado esta iniciativa porque “no está entre las funciones de los servicios de inspección y control de la Diputación realizar esta labor” y sí entre las de la Fiscalía o la Autoridad Vasca de la Competencia. El departamento de Acción Social se limita a cuestiones que tengan que ver “con la vulneración de la normativa de los servicios sociales”, ha explicado la jeltzale Idoia Inoriza.